



MEMORIA, EUSKARAREN ETA HIZKUNTZEN IKASKUNTZARAKO INSTITUTUAREN OSAERA ETA EGITEKOAK ZEHAZTEN DITUEN DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURAKO ARAU-ERAGINAREN AZTERKETARI BURUZKOA

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedura arautzen duen ekainaren 30eko 6/2022 Legeak (Aurrerantzean, XOEPL) bere 15.3 artikuluan jasotzen du espedientea izapidetzeko eskumena duen zuzendaritza-zentroak arau-eraginaren azterketari buruzko memoria bat egin behar duela. Aipatutako artikuluan zehazten denez, "Memoria horretan bildu edo berretsiko da hasiera emateko aginduaren inguruan proposamena egin duen organoaren iritziz azpimarragarria izan daitekeen edozein alderdi".

Horri jarraiki, memoria hau ematen da, eta bertan legean deskribatutako atalak zehaztuko dira, Hezkuntza Sailaren baitan autonomia funtzionala duen Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutua organoaren osaera eta egitekoak zehazten dituen dekretu-proiektuari dagokionez.

Halaber, Memoria honek barne hartzen du, XOEPLen 15. artikulua 4. paragrafoan aipatutako azterketa juridikoa, eta aztertzen du arau-proiektuaren oinarri objektiboa, haren edukia legeari eta zuzenbideari egokitzen zaion eta aragintza-teknikaren jarraibideak betetzen diren.

a) Proposamenaren egokitasuna eta arautzeko aztertu diren bestelako irtenbideak

Etorkizuneko dekretuaren xedea izango da abenduaren 21eko 17/2023 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena, 90. artikulua bidez sortutako Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren osaera eta egitekoak zehaztea.

Helburua izango da euskal gizarteak azken hamarkadetan izandako eraldaketek hezkuntzan eta, zehatzago, hizkuntzen didaktikan zein normalizazioan planteatu dituen erronka berriei erantzuteko egitura eratzea.

b) Indargabetuko diren arauak

Dekretu berria onartzeak berekin ekarriko du arau hauek indargabetzea:

- Euskal Girotze Barnetegien sorrera eta jardute-modua arautzen dituen maiatzaren 29ko 147/1990 Dekretuaren xedapenak, egitura eta antolamendu gaiei dagokienez.
- IRALE programa arautzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1994ko urtarrilaren 28ko Aginduaren II. atalburua, xedapen iragankor bakarrean aurreikusitako unetik aurrera.

c) Proposatutako araua eskumen-banaketaaren ordenara egokitzea

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 16. artikulua arabera, Konstituzioaren 1. xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuz, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoa da irakaskuntza bere luze-zabalean, maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan, hargatik eragotzi gabe Konstituzioaren 27. artikulua eta hura garatzen duten lege organikoak, Konstituzioaren 149.1.30 artikulua Estatuari esleitzen dizkion ahalmenak eta goi-ikuskaritza. Ondorioz, autonomia-erkidego honi dagokio dekretu honen xede den gaia.

Era berean, aipatu behar da azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak, 2.3 artikuluan zehazten duenez, Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutua Hezkuntza Sailari atxikitako organoa dela.

Horrez gain, 4. artikulua arabera, Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuak, sailburuaren mende dela, indarrean dagoen araudiak ezarritako egitekoak gauzatuko ditu.

Laugarren Xedapen Gehigarrian ezartzen denez, Gobernu Kontseiluan erabakitako dekretu baten bidez, hezkuntzaren arloan eskumena duen sailaren titularrak proposamen arrazoitua egin ondoren, Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren titularrak izendatuko da, zeinaren ardurak izango baita Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren osaketa eta egitekoak zehaztuko dituen dekretua egiteko prozesua izapidetu eta zuzentzea. Dekretu hori Gobernu Kontseiluan onartu beharko du, gehienez ere Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Legeak ezarritako epean.

d) Ekonomian eta aurrekontuetan izango duen eragina

Ez da aurreikusten arauak gastu publikoa nabarmen handitzea ekarriko duenik, Hezkuntza Sailean lehendik dauden giza baliabideak eta baliabide materialak erabiltzean oinarritzen baita. Nolanahi ere, etorkizuneko dekretuan aurreikusitako jarduketak indarrean dauden aurrekontu baliabideen barruan garatuko dira, hargatik eragotzi gabe, hala badagokio, antolaketa doikuntzak egitea, hobeto ezartzeko.

e) Administrazio-kargak

Aurreikutzako dekretu-proiektuak ez dio administrazio-karga berririk ezartzen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari.

f) Generoaren arabeko eragina

Hasteko aginduan xedatutakoa betez, eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu batekina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 14.4 artikularekin bat etorriz, Dekretu honen generoaren arabeko inaktuaren aurretiazko ebaluazioa egingo da, eta Emakunderen txostena eskatuko da.

g) Euskararen erabileraren normalizazioa

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren Legearen 5. artikuluan xedatutako betez, araugintza-prozedura elebiduna izango da xedapen orokorra egiteko prozedura osoan zehar, eta araugintzan parte hartzen dutenen eta arau-hartzaileen hizkuntza-eskubideak bermatuko dira. Hizkuntzen berdintasuna araugintza-prozesuaren kalitatea bermatzeko printzipioa izango da. Hizkuntzen berdintasunaren bidez, testuaren lanketan bi bertsioen arteko elkarrikeria egituratua bermatuko da, bi bertsioen arteko kontrastea eta haien baliokidetasuna ziurtatuz.

Era berean, aipatutako legearen 27. 3 artikularekin bat etorriz, behin betiko onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko diren euskarazko eta gaztelaniazko testu artikulatuen zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak ziurtagiri bat jaulkiko du argitaratu aurretik, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak zehatzak eta baliokideak direla egiaztatzeko.

h) Haur, nerabeen eta gazteen gaineko eragina

Arau-xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikulua («Aurretiazko onarpena eta izapidetze-espeditetia») 3. puntuan ezartzen duenez, espeditetaren instrukzioa egiteko eskumena duen zuzendaritza-zentroak arau-eraginaren azterketari buruzko memoria bat egingo du, nahitaez. Memoria horretan jaso edo berretsiko da proposamena egin duen organoaren iritziz garrantzitsua izan daitekeen edozein alderdi, eta, nolanahi ere, haur eta nerabeen gaineko eraginari buruzko ebaluazio bat. Ebaluazio



horretan, egindako izapideen azalpen xehatua jasoko da, bai eta horiek haur eta nerabeengan izango duten eragina ere, haurren interes gorenaren printzipioa betetzen dela neurtu eta egiaztatu ahal izateko.

Era berean, txosten honek Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legea beteko du. Lege horrek 22 quinquies artikulua gehitzen dio Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoari, eduki honekin: lege-aurreproiektuekin eta erregelamendu-proiektuekin batera aurkeztu behar diren arau-eraginaren azterketaren memoriek araudiak haur eta nerabeengan duen eragina jasoko dute.

Dekretuaren helburua Hezkuntza Sailaren baitako organo bat egituratzea den neurrian, ez da ikusten haur, nerabeen eta gazteen gaineko eraginari buruzko txostenaren beharrianik.

i) Izapidetzearen deskribapena

2025eko azaroaren 11n, xedapen orokor bat egin aurreko kontsulta publikoa argitaratu zen Euskadiko egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa eta Irekian, eta epea 2025eko azaroaren 25era arte irekita geratu zen.

Ondoren, Hezkuntzako sailburuaren 2026ko martxoaren 18ko Agindua eman zen, zeinaren bidez hasiera ematen baitzitzaion Euskararen eta hizkuntzen Irakaskuntzarako Institutuaren osaera eta egitekoak zehazten dituen dekretu-proiektua egiteko prozedurari, eta argitara eman zen agindu hori.

Bestalde, dekretu-proiektua idatzi da eta aldez aurreko onarpen-agindua eman da. Hasteko agindua argitaratu ondoren, dekretu-proiektuaren lehen zirriborroa egin da, bi hizkuntzetan idatzita, eta espedienteari erantsi zaio.

Hezkuntza Saileko Euskararen eta hizkuntzen Irakaskuntzarako Institutuak arau-eragina aztertzeko memoria hau eman du. Memoria horrek, halaber, XOEPLren 15. artikuluen 4. apartatua aipatutako azterketa juridikoa jasotzen du, eta arau-proiektuaren oinarri objektiboa aztertzen du, bai eta haren edukia Legera eta Zuzenbidera egokitzen den eta araugintza-teknikaren jarraibideak betetzen diren ere.

Arau-eraginaren azterketari buruzko memoria honekin batera, honako txosten edo memoria hauek egiten dira:

- Generoaren araberako eraginari buruzko txostena.
- Enpresen eraketan, abiaraztean eta funtzionamenduan izango duen eraginari buruzko txostena.

XOEPLren 16. artikuluan eta hasiera-aginduan xedatutakoaren arabera, funtsezkoak ez diren txosten hauek eskatuko dira hilabeteko epe komunean, aldez aurreko onarpena duen xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoa argitaratzen denetik zenbatzen hasita:

- Sailaren txosten juridikoa.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena.
- Hizkuntza Politikako txostena.
- Funtzio Publikoaren txostena.
- Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren txostena.
- Euskadiko Eskola Kontseiluaren txostena.

Azkenik, espedientea aurreko apartatuetan aurreikusitako izapideen arabera osatu ondoren, izapide eta txosten hauek eskatu eta bete beharko dira:



- Aldez aurreko onarpenaren ondoren, testua Eusko Legebiltzarrera bidaliko da, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikulua 1. apartatua ezarritakoaren arabera, ekainaren 2ko 8/2016 Legeak sartutako aldaketaren ondoren.
- Entzunaldia eta jendaurreko informazioa egingo dira, XOEPLren 17. Artikulua ezarritakoaren arabera. Entzunaldi-fasean, txostena eskatuko zaio Euskadiko Eskola Kontseiluari, eragindako sektoreak ordezkatzeko dituen erakundea den aldetik, XOEPLren 17. artikuluaekin bat etorriz. Artikulu horrek jendaurreko informazioaren izapideari dagokionez xedatzen duenez, araua entzunaldi-izapidean jarriko da, eta araua eragindako ordezkari-erakundeei igorriko zaie. Parte-hartze publikoan kontuan hartuko dira gardentasunari, herritarren parte-hartzeari eta gobernu onari buruzko legerian aurreikusitako bermeak.
- Espedientea aurreko izapideekin osatu ondoren, legezkotasun-txostena eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena eskatuko dira, aipatutako XOEPLren 22. eta 23. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

j) Irigarritasunaren azterketa

6/2022 Legearen 15. artikulua arabera, irigarritasunaren azterketa egingo da, bai araudiak jasotzen dituen tresna teknikoena, bai arauaren beraren ezarpenarena. Azterketa xehatua lortzeko, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzari horri buruzko txosten bat eskatuko zaio.

Aipatutako txostenaren aurretik, dekretu honek irigarritasunaren arloan duen eraginari buruzko gogoeta labur bat egin daiteke.

Irigarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen 6. Artikuluak komunikazio sistemetak irigarritasunari buruzko xedapen orokorrak jasotzen ditu. Hortik ondorioztatzen da komunikazio-sistemak herritar guztien eskura egongo direla, eta hori bat dator aipatutako prozedurarekin, izaera elektronikoa izateak herritarren irigarritasuna errazten baitu. Hain zuzen ere, aipatutako artikulua bigarren apartatua adierazten da administrazio publikoek bitarteko tekniko egokiak erabiliko dituztela komunikazio-sistemetan, eta uste da modu elektronikoa bitarteko egokia dela xede horretarako; izan ere, aukera-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta desgaitasunen bat duten pertsonen irigarritasun unibertsalaren alde egiten du, bitarteko elektronikoen administrazioarekin komunikatzeko bide alternatibo bat ematen baitute.

Era berean, zerbitzu publikoetarako sarbide azkarra, eraginkorra eta efizientea bermatzen da, bitarteko elektronikoen bidez, bai eta herritarren beharrei erantzun dieten kalitatezko zerbitzu erabilgarriak ere.

k) Dekretu-proiektuak eragindako beste eragin batzuk

Ez da ikusten dekretu-proiektu honek eragin garrantzitsurik duenik XOEPLren 15. artikulua 3. apartatua zerrendatutako gainerako eremuetan.

l) Ex post ebaluazioaren aurreikuspena

Dekretu honek hezkuntza-sistemaren aldeko ondorioak izango dituela aurreikusten da; izan ere, Institutuaren egituratzea zehazteak bere kudeaketa, fiskalizazioa eta segurtasun juridikoa finkatuko ditu. Modu horretara, Institutuaren jarduketak nagusiek —deialdiak, zerbitzu-eginkizunen luzapenak (ZZEE), langileen kontratazioa— arau-esparru propio eta autonomia izango dute.

Dekretuak honako hobekuntza hauek ekarriko ditu:

**Eskumen-esleipena**

- Zehaztuko da zein arduranez sinatu behar dituen deialdiak, ebazpenak eta bestelako egintza juridikoak.

Prozedura-esparru propioa

- Araituko dira deialdiak, zerbitzu-eginkizunak, jarraipenak eta antolaketa-prozedurak.
- Kudeaketa estandarra, egonkorra eta aurreikusgarria izango da.

Segurtasun juridikoa

- Egintzen legezkotasuna indartuko da eta fiskalizazio-arriskuak murriztuko dira.
- Institutuaren jardunaren egonkortasuna eta babesa bermatuko dira.

Langile-politika eta egitura

- Lanpostu-zerrenda eta beharrianak modu koherente eta egituratuan definituko dira.
- Kontratazioari estaldura juridiko sendoa emango zaio.

Efizientzia administratiboa

- Kudeaketa arinago eta eraginkorragoa izango da.
- Prozesuak azkartu eta zalantzak desagerraraziko dira.

Azkenik, arauak bete behar dituen izapideak eta txostenak amaitu ondoren, prozedura amaituko da Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak behin betiko onartzen duenean eta, ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denean, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aplikatuz. Apartatu honetan deskribatutako prozedura amaitutakoan, dekretu-proiektuaren testua behin betiko idatziko da, eta Hezkuntzako sailburuak onartu beharko du, XOEPLren 27. artikulua araberaz. Azken espedienteari prozedura osoaren memoria labur bat erantsiko zaio, XOEPLren 24. artikulua bigarren, hirugarren eta laugarren apartatuetan, hurrenez hurren, adierazitako baldintzetan.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan

Josune Zabala Alberdi
Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren zuzendaria
Hezkuntza saila - Eusko Jaurlaritza